# I. ERANSKINA
# 2026rako TAXI-BONUEN DIRULAGUNTZA JASOTZEKO ESKABIDEA

## ESKATZAILEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| Izena: | Lehen abizena: | Bigarren abizena: |
| Helbidea: | | |
| Herria: | PK: | Telefonoa: |
| NANa: | Jaioteguna: | |
| Eskaera berria: ☐ | Familia-unitatearen kide kopurua: | |
| | Desgaitasunen balorazioa duten kideen kopurua: | |
| Berritzea: ☐ | Egoitza batean dauden kideen kopurua: | |

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

- ADIERAZPENA: Bete egiten ditut dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorrak eskatutako betekizun orokorrak eta deialdi honetan ezarritako berariazkoak, eta ez dit eragiten onuradun izateko debekuzioetako bakar batek ere.
- ADIERAZPENA: Egunean ditut zergei dagozkien betebeharrak, bai eta Gizarte Segurantzarekin ditudanak ere.
- ADIERAZPENA: Ez dut gidabaimenik, edo desgaitasunaren ondorioz fisikoki ez naiz gidatzeko gai.
- ADIERAZPENA: Ez dut mugitzeko desgaitasuna dutenendako egokitutako ibilgailu propiorik.
- ADIERAZPENA: Eman ditudan datu guztiak egiazkoak dira, eta jakinaren gainean nago datuak ezkutatzea edo faltsutzea nahikoa arrazoi izaten ahal dela espedientea baliogabetzeko.
- BAIMENA EMATEN DIOT Iruñeko Udalari, bere eginkizunak gauzatzean, administrazio publiko eskudunek dituzten fitxategi publikoak egiaztatu eta kontsultatu ditzan, deialdi honetan eskatutako betekizunak eta inguruabarrak betetzen direla egiaztatze aldera.

| SINADURA |
|---|
| NANa |

Iruñean, 2026ko ...................aren ......(e)an.

Datuen babesa: Iruñeko Udala da eskatutako dirulaguntzaren edo laguntzaren kudeaketa egiteko erabiliko diren datu pertsonalen arduraduna. Datuak lagatzen ahalko dira indarrean dagoen legeria betez. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Udalaren intranet sarean, datuen babesari buruzko atalean, informazio gehiago duzu eskuragarri.
Laguntzaren eskabidean hirugarrenen datuak jasotzen badira, aurreko paragrafoan adierazitakoen berri eman beharko zaie datuak sartu aurretik, eta, beharrezkoa izanez gero, haien baimena eduki beharko da.

**ERANTSI BEHARREKO AGIRIAK**

- **Eskaera berriak:**

a. NANaren edo AIZaren fotokopia

b. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitorpena eta urte bereko datu fiskalen orria. Baldin eta eskatzailea errenta aitorpena egitera derrigorturik ez badago, hori egiaztatze aldera Foru Ogasunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du. Horrez gain, azken ekitaldiko datu fiskalen orria aurkeztu beharko du.

c. PFEZaren datu fiskalen dokumentuan ageri diren banku-kontuetako egungo saldoen ziurtagiria, bai eta azken errenta aitorpena egin ondoren sortu diren banku-kontuetako saldoena ere.

d. Desgaitasun-ziurtagiriaren fotokopia, zeinetan ofizialki aitortzen baita mugikortasun urria duela edo garraio kolektiboa erabiltzeko mugikortasun-zailtasun larriak dituela.

Hala badagokio:

e. Desgaitasuna edo mendekotasuna duena artatzeko norbait kontratatu izanaren frogagiria.

f. Hipoteka edo alokairua ordaintzen dela egiaztatzen duen frogagiria.

g. Derrigorrezko hezkuntzaren osteko ikasketa arautuak ematen dituen ikastetxe batera joaten dela egiaztatzen duen frogagiria.

h. Egoitza edo eguneko zentroaren ziurtagiria: interesdunak hilero ordaindutakoa adierazi behar du, honela banakatuta: egoitzako edo eguneko zentroko plazaren hileko kostua, Zerbitzuari Lotutako Prestazioagatik jasotako zenbatekoa eta egoiliarrak eginiko ordainketa garbia.

i. Deialdiaren oinarrietako D.1 puntuan jasotako salbuespenezko egoerak justifikatzeko agiriak.

- **Berritzeak:**

a. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitorpena eta urte bereko datu fiskalen orria. Baldin eta eskatzailea errenta aitorpena egitera derrigorturik ez badago, hori egiaztatze aldera Foru Ogasunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du. Horrez gain, azken ekitaldiko datu fiskalen orria aurkeztu beharko du.

b. PFEZaren datu fiskalen dokumentuan ageri diren banku-kontuetako egungo saldoen ziurtagiria, bai eta azken errenta aitorpena egin ondoren sortu diren banku-kontuetako saldoena ere.

Hala badagokio:

a. Desgaitasuna edo mendekotasuna duena artatzeko norbait kontratatu izanaren frogagiria.

b. Hipoteka edo alokairua ordaintzen dela egiaztatzen duen frogagiria.

c. Derrigorrezko hezkuntzaren osteko ikasketa arautuak ematen dituen ikastetxe batera joaten dela egiaztatzen duen frogagiria.

d. Egoitza edo eguneko zentroaren ziurtagiria: interesdunak hilero ordaindutakoa adierazi behar du, honela banakatuta: egoitzako edo eguneko zentroko plazaren hileko kostua, Zerbitzuari Lotutako Prestazioagatik jasotako zenbatekoa eta egoiliarrak eginiko ordainketa garbia.

e. Deialdiaren oinarrietako D.1 puntuan jasotako salbuespenezko egoerak justifikatzeko agiriak.